

# Plaza >



Naziek Hendaia aldean eraikitako bunker mota baten maketa. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

‘Bunker arkeologia: Atlantikoko Harresia’ ikusgai dago Donostiako Rezola Museoan; Hendaia ingurua nazien harresiaren zati izan zen, aliatuen sarrera galarazteko.

## Hitlerren beldurraren froga

**Aiert Iriarte** Donostia

**B**adirudi zenbait pertsonentzat Mundu Gerra ahaztuta dagoela; Añorgako (Donostia, Gipuzkoa) Rezola Museoan *Bunker arkeologia: Atlantikoko Harresia* erakusketan ikus daitezke uste baino hurbilago daudela gudaren arrastoak. Hendaia aldean 150 bunker daude.

Europako mapa batek modu argian erakusten du harresia eraikitzeo egindako lana. Bidasoatik Norvegiara zabaldu zen 4.000 kilometrotan zehar; hormigoizko 12.000 eraikuntza banatu ziren bertan. 600 bunker modelo diseinatu zituzten, bakoitza bere funtzio militar eta tokiko orografiara egokitua. Todt erakundeak eraiki zuen estruktura guztia, estrategia eta logistika aldetik erudugarria izan zena. Ramon Barea erakusketaren komisarioaren hitzetan, «ordura arte erabili gabeko bitartekoak (material, pertsona, logistika...) erabili ziren bertan», eta bi urteko iraupena izan zuen.

Atlantikoko Harresiaren sorrera ulertzeko, egun garrantzitsua izan zen 1941eko irailaren 22a; Hitlerrek porrota izan zuen Ingalaterrako Guduan eta indar gehienak ekialdera bidaltzea erabaki

zuen, Errusia hartzeko. Ondorioz, Mendebaldeko frontea indartu behar izan zuen aliatuek ez zezaten egoera aprobexatu kostatik sartzeko. Hori dela eta erabaki zuen Atlantikoko Harresiaren eraikuntza hastea. Halere, 1944ko ekainaren 6an aliatuek Normandiako harresia gainditu eta lehorreratzea lortu zuten. Horrek Alemaniaren porrota ekarri zuen. Hiru faktorek eragin zuten nagusiki aliatuen garaipena: Airean nagusizirela, alemaniarrek ez zeukaterreserbarik eta gotortutako sektoreak anitzak zirela.

### Bilakaera bitxiko eraikuntza

Joseph Goebbels Hitlerren Propaganda Ministro eta lagun mina arduratu zen harresiaren propaganda zuzentzeaz. Zeharkatu ezin irudikatu zuen, eta, eraginkortasun handiko eraikin ugari izanda, tiro egiteko aukera handia eskaintzen zuela. Frantziako kaleetan kartel gogorak banatu zituzten aliatuak etsai bezala ikusi zituzten; horietako zenbait ikusgai daude erakusketan. Nola bukatu zen ikusita, argi geratu zen amaitu gabe zegoela eta pitzadura asko zituela.

Erakusketako zenbait argazkik harresia eraikitzeaz arduratu zuen Todt erakundearen bilakaera

erakusten dute; nahiko sorrera berezia izan zuen. Hitlerrek Organisation des Autostrades erakundeko ikuskatzaile nagusi izendatu zuen Fritz Todt. Haren ardura izan zen Alemaniako autobide eta errepide sareak eraikitzea. 1938an talde hori Todt erakunde bihurtu zen. Lurreko Armadaren parte izan arren, estatus berezia zuen, eta horrek gatazka ugari sortzen zituen. 1942an Hitlerrekin elkarriketa latza izan ondo-

### Hendaia eta inguruak izan ziren kostako defentsa gunerik mardulenetako bat

ren Fritz Todt-en hegazkinak eramiz misteriosuan lurra jo zuen. Bertan lan egiten zutenak soldatapeko boluntarioak zein atzerritik ekarritako gerra presoak ziren. 1944an Frantziako bakarrik 291.000 gizon zeuden lanean.

Erakusketaren erdian Todt frontedun bunker baten maketa ikusi daiteke. Lehen aipatutako 600 bunker motatatik hiru erabiltzen zituzten gehienbat, eta haietako bat zen. Tiro egiteko zuloak jaurtigairik ez sartzeko prestatua zegoen; leherketak leuntzeko harmailak zituen. Bestalde, Barbara zelatatzeko dorrea zegoen, biri-

bila zen etor zitezkeen jaurtikitak ekiditeko; 120 zentimetroko paretak 300 kilotik gorako bonben talka jasan zezaketen. Azkenik, Blockhaus, eraikin autonomoa zen, hainbat egun edo astez bertan irauteko prestatutakoa, munizio eta elikagai andana bil zitzakeelako; kanpoaldearekin telefono eta irratiz komunikatzeko aukera zuen, lurpeko kable sarearen bidez. Todt erakundeak eraikin elkarriketa latza izan ondo-

bilan erabilten zuten lanak errazteko, denbora aurreztu eta lanen antolaketa sinplifikatzu.

Gelaren erdialdean ikusi daitezke Hendaia kostaldean eta Abadia gazteluaren inguruan kokatu ziren bunker guztiak ere. Erraz uler daitezke, Hendaia kosta parteko defentsa gunerik mardulenetako izan zela kontutan hartuta; 1942an hasi ziren eraikitze lanak, eta Lapurdiko kostaldean zehar ehunka bunker babestoki eta munizio gordetegi eraiki ziren. Erwin Rommel *basamortuko azeria* 1943an Atlantikoko Harresiaren ikuskatzaile izendatu zuten. Eraikinak babesteko itsaso eta lurrean oztupo ugari ezarri zituen, hondartzetara etsairik ez heltzeko. Kontraerasoan laguntzeko Pantzer dibisioak ezarri zituen. Hala ere, Hitler Calais itsasartearekin gehiegi tematu zen

### Eugen Benzing, bi urte Hendaia bunker batean

➔ Erakusketak Eugen Benzing soldadu alemaniarren testigantza jasotzen du; Ramon Barea erakusketaren komisarioak Hendaia Abadia Gazteluan bisita gidatu bat egiten ari zela ezagutu zuen. Errusian egon ondoren 1943an Epinalera (Frantzia) bidali zuten lehenik 13 kiderekin batera, eta Hendaia jarraian, Standard 257 zenbakiko 8/747 kostako bateriara. «Errusian konfiskatutako 152 milimetroko obusen kanoilari izateko trebatu ninduten», azaltzen du Benzingek. «Normalean 40-55 urte bitarteko gizonak osatzen zuten bateriari. Guk 17-18 urte besterik ez genituen ez guardia egitea egokitzen zitzaigun beti».

Bizimodu lasaia izan zuten bertan, dutexak, jantokiak eta logelak zeuzkaten, dena benetako etxeak bailiran apainduta. Hala ere, janari eskasia iritsi zenean zenbait kidek bere buruaz beste egin zuten, etsipenak jota. 1944ko uztailean agindu zuten Hendaia uztea; joan aurretik kanoiak balio gabetu zituzten. Bordele pasatua erresistentziaren eraso jaso zuten, eta Poitiers inguruan errenditu ziren 16.000 bat gizon.

eta han kokatu zituen erasorako eraikin gehienak.

### Bunkerrak, ondare historikoa

Bunkerra memoria eta kultur ondare gisa azaltzen du erakusketak, eta Atlantikoko Harresian II. Mundu Gerrako memoriaren parte bat jasotzen dela. Ramon Barea-aren ustez «Europako historiaren iragan mingarria gogoratu arren, ondarearen parte dira». Horregatik, zaintzea ezinbestekoa dela uste du, eta, horretarako, oso garrantzitsua da herritarrak informatu eta sentiberatzea, egitura berri baliotzat hartzea. «Bunkerrak naturan eta herri inguruan horren sartuta daude, paisaiaren beste elementu bat baitira». Zenbait argazkik horren testigantza ematen dute, bunkerrek hondartza eta arroketan ondo ematen dutela erakutsiz. Azkenik, bideo batteko bunker batean barrena eramaten du bisitaria, eta garaiko irudiak azaltzen ditu.

### ERAKUSKETA

- **Izena.** ‘Bunker arkeologia: Atlantikoko Harresia’
- **Non.** Rezola Museoan, Añorgan (Donostia, Gipuzkoa).
- **Noiz arte.** Azaroaren 2a, igandea.
- **Komisarioa.** Ramon Barea, historialaria.